

LAN ATXIKIPENAK (desgaitasuna duten langile aktiboak)

Desgaitasuna duten langile aktiboari artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen den atxikipen-ehunekoen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatzearen ondoriozko atxikipen-ehuneko hori honako eskala honetan adierazitako puntuetan murriztuko da, aipatutako langilea honako egoera hauetakoren batean egotearen arabera:

a) Ehuneko 33ko edo gehiagoko eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duten langile aktiboak.

b) Ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila eta ehuneko 65etik beherakoa duten langile aktiboak, mugikortasun mugatuko gabezia-egoeran daudenak; halakotzat hartuko da urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, mugikortasun-jardueren mugei buruzko azpi-baremoan (BLAM) ehuneko 25eko edo gehiagoko mugikortasun-muga lortzea.

c) Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten langile aktiboak.

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (€)		DESGAITASUN GRADUA	
Gutxienez	Gehienez	4.a) Apartatua	4.b) apartatua eta 4.c) apartatua
0,00	25.410,00	9	12
25.410,01	32.610,00	7	12
32.610,01	48.060,00	6	10
48.060,01	56.780,00	5	10
56.780,01	80.730,00	4	8
80.730,01	122.030,00	3	6
122.030,01	190.410,00	2	5
190.410,01	Hortik aurrera	1	3